

ZIURTAGIRIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta ANDREA, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2018ko otsailaren 6an egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

“2018KO ARAUDI PLANA ONARTZEA (2018SSEC0002)

Udal Plenoak, aho batez, Enplegu eta Pertsonal Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

2016ko urriaren 2an sartu zen indarrean 39/2015 Legea. Honen 132. artikulua honakoa dio:

Artículo 132. Planificación normativa.

- 1. Anualmente, las Administraciones Públicas harán público un Plan Normativo que contendrá las iniciativas legales o reglamentarias que vayan a ser elevadas para su aprobación en el año siguiente.*
- 2. Una vez aprobado, el Plan Anual Normativo se publicará en el Portal de la Transparencia de la Administración Pública correspondiente.*

Hori horrela, sailekin kontsulta egin da Hirigintza, Ingurumena eta Mugikortasun sailetik eta Ogasun, Diruzaintza eta Ondare sailetatik jarraian zehazten diren ordenantza proposamenak aurkezten dira, Araudi Planean sar daitezten. Hori horrela, 2018rako Araudi Plana aurkeztu da, honakoa:

2018RAKO ARAUDI PLANA

Ikusita 39/2015 Legearen 132. Artikuluak xedatzen duena udal honek 2018an onartzea, edota aldatzea proposatzen duen ordenantzen zerrenda jarraian zehazten dena da:

HIRIGINTZA, INGURUMEN ETA MUGIKORTASUN SAILA:

1.- TABERNA, KAFETEGI ETA ANTZEKOETARA ZUZENDUTAKO ESTABLEZIMENDU PUBLIKOAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA (ALDAKETA)

Ordenantza hau 1998tik dago indarrean eta ordutik onartu diren lerrun altuagoko arauak zuzenean eragin diote. Ondorioz, hainbat atal ez datoz guztiz bat arau horiekin eta interpretazio lana eskatzen du. Egoera hori erregulazio egokiaren printzipioaren aurkakoa da eta beraz ordenantza gaur egungo marko juridikora egokitzea beharrezkoa da, segurtasun juridikoa indartu eta arau argiak izan ditzagun.

2.- ARRASATE UDALERRIAN OBRAK EGITEAN EDUKONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPOEZ ETA MATERIALEZ LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIAREN MUGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA (ALDAKETA)

Lurzoru publikoaren okupazioa, bai izaera pribatiboarekin bai eta bereziarekin ere, arazoak sortzen dituen gaia da. Beraz oso garrantzitsua da espazio publikoaren erabilera egokia bermatu eta arazo horiek ekiditeko erregulazio egoki bat izatea. Zentzu horretan, azkenaldian ohartu gara beharrezkoa dela errealitatean ematen diren eta ordenantzan jasota ez dauden hainbat okupazio mota arautzea. Horretarako aukera bat da ordenantza hau aldatzea, gai berarekin lotura duen beste ordenantza berri bat sortu beharrean.

3.- HIRI LURZORUKO BIZITEGI EREMU FINKATUETAN LOKALEN ERABILERA ETXEBIZITZARA ALDATZEKO DIREN JARDUNAK ARAUTZEKO ORDENANTZA (BERRIA, AURREKOAREN INDARRALDIA AMAITUTA)

Lokalak etxebizitza bihurtzeko programak jarri zirenetik urte batzuk pasatu dira. Programa hori aurrera eramateko hainbat ordenantza onartu dira, guztiak aurrez ezarritako indarraldi bat zutenak eta azkenaren indarraldia amaitu egin da. Programarekin jarraitzeko lokalen erabilera ahalbideratu eta arautuko duen ordenantza bat onartu behar da.

OGASUN, DIRUZAIN'TZA ETA ONDARE SAILA:

1.- ORDENANTZA OROKORRA ZUZENBIDE PUBLIKOKO TRIBUTU ETA BESTE DIRU-SARRERA LOKALEN KUDEAKETA, KOBRANTZA ETA INSPEKZIOA ERREGULATZEN DUENA. (BERRIA)

Ordenantza honen xedeak hurrengoak dira:

- a) Zuzenbide publikoko tributu eta beste diru-sarrera lokalen kudeaketa hobetzea eta erraztea ekar dezaketen prozedurazko aspektuak arautzea.
- b) Hainbat Ordenantza Fiskaletan komunak diren aspektuak erregelatzea, hartara horiek errepikatzea saihestuko baita.
- c) Udalak zehaztu edo garatu beharreko gaiak erregelatzea.
- d) Herritarrak informatzea bai indarrean dauden araez, bai tributu-pagatzaileen eskubideez eta bermeez, horien berri jakitea denen interesekoa gerta baitaiteke, tributuzko obligazioak behar bezala konplitze aldera.

2.- ARRASATEKO UDALAREN KONTRATAZIOKO ADMINISTRAZIO PROZEDURAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA. (ALDAKETA)

Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuena onartu ondoren, Arrasateko Udalak 2011ko apirilaren 7an egindako osoko bilkuran onartutako "Kontratazioko administrazio prozedurak arautzen dituen Udal Ordenantza" aldatu beharra dauka, araudi berriari egokitzeko.

Ordenantza honen xedea izango litzateke kontratazioari buruz indarrean dagoen araudi berria garatzea, eta Udalean kontratazio publikoa behar den moduan erabiltzea ekarriko duten prozedurak erabili ahal izateko, udal jarduerak behar den moduan funtzionatzeko, legearekin inolako kontrakotasunik izan gabe eta udal baliabideak era arrazionalen eta efizientean erabili ahal izateko.

3.- 2019RAKO ORDENANTZA FISKALA (ALDAKETA)

Ordenantza honen xedea da udal tributu eta prezio publikoen urteko errebisioak gauzatzea eta berauek eguneratzea, bai zerga, tasa eta prezio publikoen kopuruari dagokionean, bai eta hobari edo exentzioei dagokionean. Honetarako udalak kontuan hartu behar ditu bultzatu edota ekidin nahi dituen egintza edo helburuak, kopuruak eguneratzeko indizeak etab.

Esp.kodea: 2018SSEC0002

Gaia: Araudi plana 2018
Hasiera eguna: 2018/01/26

Hori horrela,

Enplegu eta Pertsonal Batzordeak osoko bilkurari proposatzen dio:

Lehenengoa: 2018rako Araudi Plana onartzea aurrez aipatutako testuarekin.

Bigarrena: Aipatutako plana udal web orrian erakusgai jartzea.”

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2018ko otsailaren 23a.

O.E.

Alkatea